

'EREÑOTZUKO BIDEA' KONPONTZEKO OBRA IBARLUZEN



Ezkerrean lanean, azken 'ikutuak' ematen. Eskubian, kaminu ertzeko koskak eta pitzatuak.

Kriskitina dantza taldeak asanblea berezia du gaur

KRISKITINAK batzar berezia egingo du gaur, ostirala, arratsaldeko 19:00etan, bere lokalean (Aristizabal 5). Kriskitinak 3 puntu hitz egingo ditu: 1) zuzendaritza berria aurkeztea 2) bazkideak berritzea 3) galderak eta erreguak. □

Platon filosofoaren 'Ion' euskeraz

HANNOT Rodriguez filosofo hernaniarrak eta Jon Etxaide irundarrak Platonen Ion elkarriketak euskeratu dituzte. Liburua duela egun batzuk Koldo Mitxelena aurkeztu zuten eta gaur Hernanin aurkeztuko dute, Biterin, 19:30etan. Liburua JAKIN pentsamendu aldizkariaren Jakin irakurgaiak sailean argitaratu da. □

Bideari eusteko pareta egiten ari dira Ibarluze parean

■ 30 bat metroko luzeran dijoa pareta, kaminuz azpikaldetik ■ Aspaldiko arazoari erremedioa jarri nahi dio Diputazioak obra honekin ■ Asfaltoa botako dute bidean, pareta lanak bukatu eta gero.

KAMINUARI eusteko obra egiten ari da Diputazioa Ereñotzuko bidean, Ibarluze-ko poligono gainaldean. 30 bat metro luzeko pareta dijoa, 2,5 metro zabal eta leku batzuetan 7 bat metro altukoa. Itxuraz lur biguneko terrenoa da eta nahiko zaila dago lurrari behar bezala eusten. Hilabete eta erdi daramakite lanean eta obra astebete barru bukatuko omen dute.

Betiko arazoa

Beti eman ditu arazoak Ziku-

ñagako buelta eta Ibarluze-ko sarrera bitarteko tramoak. Bertako bizilagun batek esan digunez, eurak beti ezagutu izan dute arazoa hor, "baita pabeiloak egin baino lehenago ere".

Teoria jakinik ez

Lurra zergatik den biguna ez dago erreza jakiten. Auzotarrak esan digunez ur mugimendu haundia dago bide azpi horretan. Diputazioaren ustez ez dago ezer seguru esaterik, baina, gauza bat omen dago garbi: arazoa

haundiagotu egin dela azkeneko poligonoak egin zituztenetik.

"Erremedio definitiboa"

Behin eta berriz aritu izan dira obratan kaminu ertz horretan. Asfaltoa botatzen dute, baina, 'batxeak' berriz ateratzen dira. Horregatik pareta egiteak dirudi erremedioa. Oraintxe gutxi goragoko tramoari jarri zioten eta badirudi nahiko sendo eusten diola.

Oraingo hau betirako izango dela pentsatzen du Diputazioak.

Asfaltoa tramo guztian

Aste bete barru, paretako lanak guztiz bukatuta egongo direla kalkulatu dute bertan ari diren langileek. Ondorenean, asfaltoa botatzeko lanak hastekoak dituzte ondatua dagoen bide zatian. □

Antziolako bide nagusia itxita, bihar (08:00-11:00)

ZINKOENEATIK Galarretara dijoan bidea (GI-131) itxi egingo dute kaminu ondoko etxe batzuk botatzeko (24-28-30 garrenak).

Karmelo Labakako kruzetik Antziolako kruzera zatia egongo da itxita. Bota 08:00etan egingo dituzte; itxita 11:00ak arte egongo da eta 11:00etatik 13:00-etara karril bakarra irekiko dute.

Kamionek Karabeldik Zikuñagako rotondara joan beharko dute eta han bariantea hartu. Ko-txeek Sagastialdetik dute aukera Cuesta de la muertera sartzeko. □

SAGARDOTEGIA
IPARRAGIRRE

HERNANIKO SAGARDOA OSINAGA AUZOA
943 55 03 28

Asteazkenetik larunbatera zabalik. Larunbat eguerdian enkarguz. Tel. 943 55 03 28

HERNANI BIDAIAK

Urbietan etorb. 6 - HERNANI
Tel. 943 33 00 49 - 33 01 74
e-mail: hernanib@teleline.es

Hernanitik munduko leku guztietara iristen lagunduko dizugu.

HATOR
Asesoria

AHOLKULARITZA

Fiskala
Laborala
Kontablea
Administratiboa

HATOR
Aseguruak

Kardaberaz 60
Tel. 943. 55 43 12
20120 HERNANI

AMAIA
R R R R R
R R R R R
DE
G I A

ARRATZAK
ITSASBIAK
FRESKO ETA
IZOZTUAK

Kardaberaz 34
Tel. 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 HERNANI

AMEGAR, C. B.

ETXE TRESNAK

SUKALDE ALTZARIAK
HORMA ARMARIOAK
Neurrira egiten ditugu.
Izpizua 27

ELEKTROGAILUAK - TB -
BIDEOK - HI-FI - OPARIAK
Txirrita kalea 15

Tel 943 551125-Faxa 943 551603
HERNANI (Gipuzkoa)

Arrigoain
jatetxea

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Karta

Santa Barbara 87 (Harrobian)
Tel. 943 55 00 97
-Astelehen eta astearte gauetan itxia-

ERREMONTA -Binakako txapelketa-

Finala Galarretan, larunbatean

BINAKAKO txapelketako finala bihar jokatu da Galarreta frontoian: Zeberio II-Iriarte / Altuna I-Eizagirrenen kontra arituko dira.


Binakako txapelketan 10 pelotari aritu dira lehian eta bi fase izan ditu. Lehenengoan, 5 bikoteek ligila jokatu zuten, denek denek kontra. Gero, bosgarrena eliminatu eta lau aurrenekoek semifinalak jokatu dituzte eta, txapelketa bukatzeko, larunbatean finala.

Faborito garbirik ez

Finalak borrokatu amorratua izateko itxura du. Zeberio II-Iriartek eta Altuna I-Eizagirrek txapelketa honetan jokatu dute elkarren kontra, eta Altuna I-Eizagirrek 40-33 irabazi zuten. Hala ere, Imanol Altunaren ustez, partidu hark ez du ezer esan nahi, jokatzeko bi bikoteak sailkatuta zeudelako.

Lau pelotarietarik Eizagirre eta Zeberio IIak Binakako Txapelketako txapela jantzi izan dute; Altuna I eta Iriarte daude oraindik estrenatzeko. Larunbatean bietakoren bati egokituko zaio.

Pelotariak 119, 120 eta 121 gramoko pelotak aukeratu dituzte. Partidua 17:00etan da eta ETBk zuzenean emango du.



Altuna I eta Eizagirre, txapel bila joango den bikote finalista bat.

HITZ BITAN



Asteburuan Hernanin jokatu ziren partidu asko. (Arg: Armentia)

MAHAI TENISA

Bigarren mailan 4-0 irabazi eta Autonomikoan 4-0 galdu. Aurreko asteburuak denetik ekarri dio Hernaniko mahai tenisari. Estatuko Bigarren mailan Hernani-Easok 4-0 egurtu zuen Iruña. Taldeak oraindik ez du bigarren bueltan partidurik galdu eta sailkapenean goian jarraitzen dute. Liga Autonomikoan, berriz, egurra Hernani-Easok hartu zuen: Etxadi liderrak 4-0koa sartu zion. Alebin eta infantil mailan Gipuzkoako Top-a jokatu zen Hernanin eta 24 herritar atera ziren. Papel ona egin zuten eta Erik Diez finalera iritsi zen.

MOLOFF IRRATIA

'El show de Truman' gaur eta Plaza Berritik emisioa bihar. Molotoff-en Irrati Astea aurrera dioa. Eguntan elkarrizketa eta mahai inguruak izan dira eta gaur *El show de Truman* filma botako dute. Biterin, arratsaldeko 22:30-etan. Bestalde, bihar larunbata, egun osoko ekitaldia prestatu du Molotoffek. Plaza Berrian unitate mobila jarri eta goiz osoan handik emitituko du bere programazio berezia. Gauean, berriz, barrikotea egingo dute Arizmendi jatetxean.

XAKEA

Bigarren fasea otsailaren 18an bukatuko da. Joan den urtea ezkerotik Hernaniko Xake txapelketa jokatzeko ari da. Bigarren fasea, berez, aste honetan zen bukatzekoa, baina, antolatzaileek astebete luzatzea erabaki dute. Hala, fase honetako partidu guztiak datorren astelehenerako jokatu eta egon beharko dute.

UMEENTZAT JOKOAK PISZINAN

Ur-ludotekak arrakasta. Kirol Patronatuak umeentzako jolas lekua prestatu du piszina igande eguerdirako eta arrakasta handia izaten ari da. Piszina bi kale daude umeentzako jarrira beren monitore eta jokuekin. Bitarte horretan, gurasoak igeri egin lezakete; edo, nahi izan ezker, jostailuak hartu eta umeekin jolasean ibili ere bai. Ur-Ludoteka igande goizeko 10:30etatik 12:30etara da.

PALA TXAPELKETA

Apuntatzeko epea zabalik. Hernaniko pala txapelketan atera nahi duenak izena emateko epea zabalik du igandera arte. Kiroldegi sarreran inskripzio orri bat dago jarria eta han apuntatu behar da. Txapelketa binakakoa da eta partiduak igandean jokatu dira, kiroldegian. □



Musika banda kontzertuan, udaletxeko arkupean.

Bandak 'Inauterietako Piñata' kontzertua du, igandean

14 kanta joko dituzte Udaletxeko arkupean, 13:00etan.

MUSIKA Bandak kontzertua emango du igandean udaletxeko arkupean. Manuel Sagarna zuzendari duela, Bandak 14 kanta joko ditu: *Diana,*

Iriyarena, Pello ziriziri, Baratzako pikuak, Galtzaundi, Pastelero, Farol dantza, Paquita la vergaresa, Isabelita, Contrapas, Polka, Prasku-

rena, Habanera, Jota eta Iru-reta.

Kontzertua udalak antolatzen du eta Gipuzkoako Kutxaren laguntza du. □

ESKOLARTEKO KIROLA -ASTEBURUKO PARTIDUAK-

WATERPOLOA	TALDEAK	NON	BIHAR	SASKIBALOIA	TALDEAK	NON	BIHAR
	Langile B-Langile A	Kiroldegia	14:00	Infantilak Mut.	Lasarte-Immaculada	Lasarte	
	Urumea A-Urumea B	Kiroldegia	14:00	Infantilak Mut.	Langile-Deutche	Kiroldegia	11:45
PELOTA	TALDEAK	NON	BIHAR	ATLETISMOA	TALDEAK	NON	BIHAR
Alebinak Mut.	Urumea-Andoaino	Usurbil	15:30	Benjaminak	Talde guztiak	Sagastialde	10:00
Infantilak Mut.	Elizatxo-Zurriola B	Altza	16:40	Alebin eta infanti	Talde guztiak	Sagastialde	11:00
Infantilak Mut.	Langile A-Herri Amets	Atano III	18:00	GIMNASIA		ERRITMIKOA	NON
Langile B-Arantz	Elizatxo-Zurriola B	Atano III	18:30		Lehenengo jardunaldia	Kiroldegia	9:00

HERIOTZAK

Jose Luis Gorrotxategi Mujika
Asteazkenean hil zen 87 urte zituela

Miguel Etxeberria Arregi
Asteazkenean hil zen 79 urte zituela

Hileta elizkizuna gaur, ostirala, 19:00etan Juan Bataiatzailea Parrokian

IRRATIAK

(E.M. 99.2) 12:00: *Zuhaitz Egurenaren* antolatzaileekin elkarrizketa
12:30: *Antigua* auzoko Bertso Pelota antolatzaileekin saioaren inguruan
23:00: *Rassklat* afrikar musika saioa.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

☎ Taxiak: 943 550093
☎ Udaltzaingoa: 943 333288
☎ DYA: 943 464622
☎ Autobusak: 943 556662
☎ Anbulatorioa: 943 557750
☎ Jokalari anonimoak 943 331103

FARMAZIAK

☎ Egunez: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793
☎ Gaeuz: Bidaur
Lasarte. Jaizkibel 2
☎ 943 362652

IRAGARKI MERKEAK

Portu auzoko Shangai taberna saldu edo alokatuko nuke. Interesatuak deitu: 600 850 400 (Marian).

Etxea daukat salgai Latsunbe Berrin. 3 logela, egongela, 2 komun, sukaldia, jardina eta terraza. Prezioa negoziatzeko. 943 550581 - 943 555629